

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Kiroldegiko administrari baten borondatezko baja gertatuko da 2026ko otsailaren 23an (ikus 2026ABFI0008 espediente-zenbakia, *MIRIAM GARCIA MOTREL: Bitarteko funtzionario izateari uko egitea* gaitzat duena). Halaber, Gizarte-zerbitzuetako administrari baten borondatezko baja gertatuko da 2026ko martxoaren 1ean (ikus 2026ABFI0007 espediente-zenbakia, *LARRAITZ TROJAOLA BEREZIBAR: LANPOSTUARI UKO EGITEA* gaitzat duena). Hirugarrenik, Gizarte-zerbitzuetako administrarietako baten aldi baterako baja ere gertatu da. Horrek guztiak 3 langile kontratatzea eragingo du, nor bere eragin-datan hasita.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere 58. artikulua dio:

- 1. Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.*
- 2. Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa-prozesurik gainditu dutenen artean.*
- 3. Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri-administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.*
- 4. Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu-zerbitzu publikoez baliatzeko aukera egongo da.*

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrianak betetzeko.*

Langileen Estatutuaren urriaren 23ko 2/2015 legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluan jasotzen dituen xedapenak kontuan harturik:

1. Lan-kontratua mugagabetzat joko da.

Iraupen mugatuko lan-kontratua produkzioaren gorabeherengatik edo langilea ordezteagatik bakarrik egin ahal izango da.

Behin-behinekotasunaren arrazoi justifikatutzat jotzeko, beharrezkoa izango da kontratuan zehaztasunez adieraztea aldi baterako kontratazioaren kausa gaitzailea, kontratua justifikatzen duten inguruabar zehatzak eta aurreikusitako iraupenarekin duen lotura.

2. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, produkzioaren zirkunstantziatzat hartuko da jardueraren eta gorabeheren noizbehinkako eta ustekabeko gehikuntza, baldin eta, enpresaren jarduera normala izanik ere, aldi baterako desoreka sortzen badute eskuragarri dagoen enplegu egonkorren eta behar denaren artean, betiere 16.1 artikuluan jasotako kasuei erantzuten ez badiete.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren gorabeheren artean, urteko oporren ondoriozkoak sartzen dira. Iraupen jakineko kontratua ekoizpenaren inguruabar horien ondorio denean, kontratuaren iraupena ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Sektore-eremuko hitzarmen kolektiboz, kontratuaren gehieneko iraupena urtebeterra arte luzatu ahal izango da. Kontratua legez edo hitzarmenez ezarritako gehieneko iraupena baino laburragoa bada, behin bakarrik luzatu ahal izango da, bi aldeak ados jarrita, eta kontratuaren iraupen osoak ezingo du gainditu gehieneko iraupen hori.

Era berean, enpresek ekoizpenaren gorabeherengatik kontratuak formalizatu ahal izango dituzte, noizbehinkako egoerei, aurreikus daitezkeen egoerei eta iraupen murriztua eta mugatua duten egoerei erantzuteko, paragrafo honetan aurreikusitako moduan. Enpresek gehienez laurogeita hamar egun erabili ahal izango dituzte kontratu hori urte naturalean, egun horietako bakoitzean egoera zehatzei erantzuteko behar diren langileak alde batera utzita. Egoera horiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute kontratuan. Laurogeita hamar egun horiek ezingo dira jarraian erabili. Enpresek, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, kontratu horien erabileraren urteko aurreikuspena helarazi beharko diete langileen legezko ordezkari.

Ezin izango da kontratu honen arrazoi gisa identifikatu enpresaren ohiko jarduera edo jarduera arrunta osatzen duten kontraten, azpikontraten edo administrazio-emakiden esparruan egindako lanak; nolana ere, ekoizpenaren inguruabarrak gertatzen direnean, kontratua egin ahal izango da.

Izendapena egiteko, beste udal batzuen aldetik lan-poltsak eskuratzerik ez da izan. Aipatu kontratazioa egitea beharrezkoa da, zerbitzu egoki bat bermatzeko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu-zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea (kasu honetan, Lanbidetik). Etorkizunean Oñatiko Udalean sor litezkeen antzeko zeregin eta lanpostuak betetzeko erabili ahal izango dira prozesu jakin honetarako jasotako hautagaitzak, sor litezkeen beharrian berri horiek asetzeko propio beste lan-eskaintza bat abiatu beharrik gabe.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATU DUT:

1. Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, 3 administrariren lanpostuak betetzeko prozesua martxan jartzea, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko, urriaren 30eko, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten dueneko, 10.1.a artikulua arabera.

2. Honako hau eskaintzen da:

3 administrari (C1) lanpostu: horietako 1 behin betiko bete arte (gizarte-zerbitzuetan), eta beste 2ak langile titularren baimen edo lizentziak bukatu arte.

Lan-jarduna: % 100

Hileko soldata gordina: lanpostuari dagokiona.

3. Hautagaiak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

3.1.- Beharrezko prestakuntza:

-Batxilergoko titulua, titulu teknikoa edo baliokidea.

-3. Hizkuntza-eskakizuna (euskara).

3.2.- Merezimenduak (20 puntutik)

3.2.1. Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak (5 puntu)

- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako gaietan zerikusi zuzena dutenak. Gehienez ere 5 puntu arte baloratuko dira. Balorazio horretarako orduak baloratuko dira eta 0,05 koefizienteaz bideratuko dira, betiere lor daitekeen gehienezko muga kontuan hartuz. Soilik hartuko dira kontuan oinarriak argitaratu baino 10 urte lehenagoko ikastaro-tituluak.

3.2.2. Titulu akademiko ofizialak. Deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, bai eta masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko tituluak ere, betiere erabilgarriak badira deitutako lanpostuan aritzeko. Epaimahaiak baloratuko ditu egokiak diren edo ez, baita beroriei eman beharreko puntuak ere, baina ezin izango du, inolaz ere, 2 puntu baino gehiago eman goragoko titulu bakoitzeko eta puntu 1 maila bereko titulu bakoitzeko.

- Eskatzen dena baino goragoko titulua, edo baliokidea (2 puntu, gehienez 5 puntu)

- Maila bereko tituluak edo baliokidea (puntu 1, gehienez ere 5 puntu)

3.2.3.- Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu)

Deitzen den azpitaldea eta lanpostua bera denean > 0,20pt/hilabetea

Azpitaldea goragokoa edo beheragokoa denean, baina lanpostu/sail berdina > 0,15 pt/hilabetea

Azpitalde bera baina lanpostu/sail ezberdina > 0,12 pt/hilabetea

Goragoko/beheragoko azpitaldean eta lanpostu/sail ezberdinean > 0,09 pt/hilabetea

Enpresa pribatuan lan egindakoa, antzeko eginkizunetan (hala irizten denean) > 0,05pt/hilabetea

* Oñatiko Udalak esperientzia eta formazioa ziurtatzeko eska dezake.

4. Epaimahaikideak:

GGBB eta Antolaketako arduraduna eta teknikaria.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan sinatu dut, Oñatin, sinadura elektronikoa agertzen den datan

Alkatea
Sin.: Izaro Elorza Arregui

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: ESKU6e82caa4-c4b3-45c0-b18c-9aada09a6e7c

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>